

DURANGOTIK HEGOALDERA LEHIAKETAREN OINARRIAK

- Lehiaketa 19 urtetik 30 urtera bitarteko gazteentzat da.
- Lantaldeko lau pertsonetatik hiruk, gutxienez, Durango jaio eta/edo bizi behar dute.
- Lehiaketan taldeka parte hartu ahalko da. **Talde bakoitza 4 gaztek osatuko dute**, eta jokoak irauten duen bitartean identifikatzeko izen bat aukeratuko dute. **Izen-ematea** doakoa da eta **medicusmundi** Bizkaiaren blogean egingo da **2022ko azaroaren 18ra arte**.
- Jokoak **bi proba puntuagarri ditu**.
- Probak 2022ko azarotik abendura bitartean izango dira.

Proba hauek izango dira:

1. Lehen proba: Bideoak egitea, aldaketaren eragile bihurtzen garela.

Proba honek bi zati izango ditu. Lehen zatian, parte-hartzaileek **medicusmundi** Bizkaiak emango duen hitzaldira joan beharko dute. Hitzaldi horretan, lehiaketaren testuingurua eta Guatemalako egoera azalduko dira. **medicusmundi** Bizkaiaren lan-ildoak ere azalduko dira. Hitzaldiaren data eta kokapena jakinaraziko zaizkie lehiaketan izena eman duten pertsonen. Hitzaldia emango dutenak ondo ezagutzen dute herrialdea eta lotura dute **medicusmundi** Bizkaiarekin. **medicusmundi** Bizkaiako hezkuntza-teknikariak ere hartuko du parte, lehiaketaren oinarriak eta probak azaltzeko.

Hitzaldiaren ondoren, talde bakoitza informazioa biltzen eta trebatzen joango da aztertu beharreko gaien inguruan, eta Guatemalako egoera azaltzen duen bideo bat egiteko. Bideoak MMBk herrialdean garatzen dituen lan-ildoetako bat jorratuko du:

- Indarkeria matxista eta sexuala
- Pertsonen salerosketa
- Klima aldaketa
- Lurraldearen defentsa

Bideoak minutu batetik lau minutura bitarteko iraupena izango du, eta Instagramen, Facebooken, Twitteren eta YouTubeen jarriko da, **medicusmundi** Bizkaiaren eta Durangoko Udalaren etiketarekin. Era berean, sarbiderako dagokion esteka helbide

honetara bidali beharko da: educa.bizkaia@medicusmundi.es. Bideoa euskaraz edo gaztelaniaz izan ahalko da.

Bideoen sormena eta edukia baloratuko da. Bideoak entregatzeko eta sare sozialetan zabaltzeko azken eguna abenduaren 2a da, 23: 59an.

2. Bigarren proba: Bidaia itzultzeko estrategiaren aurkezpena

Bigarren proba honetan, parte hartzen duen talde bakoitzak txosten bat egin beharko du, irabazle izanez gero bidaia esperientziak itzultzeko estrategia bat jasoko duena. Hau da, txostenak Durangoko herritarrei Guatemalan bizi izandako esperientzia helarazteko jarduerak eta ekimenak zehaztuko ditu, herritarrak sensibilizatzeko aldera. Gogoratzen dugu talde irabazleak konpromisoa hartuko duela bidaia ondoren hori bereganatutako ezagutzak eta bidaia Durangoko jendarteari itzultzeko, taldeak berak erabakitzen duen moduan. **medicusmundi** Bizkaia lagunak izango du horretarako.

Proba honen bidez, jarduerak jarraipena izatea bilatzen da, eta talde irabazlearen kolaborazioa ziurtatzea.

Txostenak ezaugarri hauek izango ditu:

- Gehienez 10 orri izango ditu (eranskinak barne hartuta).
- Talde parte-hartzaileei txantilo bat emango zaie, txostenak jaso behar dituen puntuak eta atal bakoitzarentzako puntuazioa azaltzen dituenak.
- Hizkuntza gaztelania edota euskara izango da.
- Durangoko erakunde edo elkarteren batekin jardueraren bat burutzea erabakiz gero, aintzat hartuko da erakunde horren babes jasotzen duen gutun bat.
- Txostena educa.bizkaia@medicusmundi.es helbidera igorriko da, 2022ko abenduaren 12an 23.59an, beranduenez jota, epaimahaiak aztertzeko aukera izan dezan amaierako ekitaldiaren aurretik.

Proposamenak abenduaren 17ko amaierako ekitaldian aurkeztuko dira. Bidaia itzultzeko estrategiak azaldu ondoren, lehiaketaren amaierako ekitaldiaren txanda izango da.

Lehiaketa epaimahai misto batek ebatziko du, zeina hauek osatuko baitute:
Durangoko Udaleko bi pertsona, eta **medicusmundi** Bizkaiaiko beste bi pertsona.

Saria Guatemalarako (Guatepeque) bidaia bat izango da, 8-10 egun bitartekoa, **medicusmundi** Bizkaia erakundeak eta osasunaren eskubidearen alde lan egiten duten beste eragile batzuk Guatemalan, jarraian azaltzen diren arloetan, egiten duten lana bertatik bertara ezagutzeko: indarkeria matxista eta sexuala, pertsonen salerosketa, klimaren aldaketa eta lurraldearen defentsa. Parte-hartzaile guztiek opari bat jasoko dute parte hartzeagatik, Durangoko dendetan trukatzeko *bono denda* bat, hain zuzen, tokiko merkataritza sustatzeko.

Jendearengan eragitea bilatzen duen jarduera bat denez, Femgarabat taldearen esku-hartzea ere izango dugu ekitaldiaren inguruan. Femgarabat grafikagintzan, arte ederretan eta komunikazioaren esparruetan feminismoaren konpromisoa jorratzen duen emakume talde bat da. Asmoa da horma-irudi batean jasotzea lehiaketaren prozesua eta gaia, gero Durangoko toki estrategiko batean jartzeko. Era horretan, obra Durangon txertatuta geratuko da, lehiaketaren eta Durangoko Udalak **medicusmundi** Bizkaia Guatemalan egiten duen lanari ematen dion babesaren oroigarri.

Kontuan izan behar dira datu hauek:

- Amaierako sarirako aukera izateko, ezinbestekoa da bi proba puntuagarriak aipatutako epeen barruan entregatzea.
- Proben puntuazioa honako hau izango da: % 40 lehen probarako eta % 60 bigarren probarako.
- Proben ebaluazioan edukia, aurkezpena eta originaltasuna hartuko dira kontuan. Era berean, epaimahaiak kontuan hartuko du GGKEren Koordinatzailearen Jokabide Kodearen eta irudien erabilpena, hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea, genero ikuspegia hala nola ingurumenarekiko begirunea.
- Probak aurkeztu ondoren, **medicusmundi** Bizkaiaaren jabetzakoak izango dira hortik aurrera, eta erakundeak beretzat gordeko du horien edukia osorik edo zati batean Elkartearen helburuetarako erreproduzitzeko, zabaltzeko edota erabiltzeko eskubidea.

- Proben planteamenduagatik ikus-entzunezko lanak aurkeztu behar badira, ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - Parte-hartzaileen jabetzakoak izango dira lanen igorpenen gaineko eskubideak, eta horien erantzukizunpean egongo da ez dela egongo bertan azaltzen diren pertsonen irudi-eskubideen gaineko erreklamaziorik.
 - Ikus-entzunezko lana ez da itzuliko, **medicusmundi** Bizkaiaren ikus-entzunezko artxiboaren parte izatera pasatuko da. Irabazle ateratzen diren lanen egileak edo egileek baimena ematen diote Elkarteari jendartean asmo komertzialik gabe eta helburu hezitzaileekin erakusteko.
- Lanak **euskaraz, gaztelaniaz edo bi hizkuntzotan** aurkeztuko dira.
- **Saria Guatemalarako bidaia** bat izango da, **gehienez 10 egunekoa**. Bidaia horretan, taldeak bertatik bertara ezagutuko du eskualdearen errealitatea eta **medicusmundi** Bizkaiak Durangoko Udalaren laguntzarekin hor garatzen duen lankidetasuneko lana. Bidaia bakar bat izango da, eta 2023ko otsailean egingo dute talde irabazleak eta erakundearen teknikariek.
- Parte-hartzaileek onarpena ematen diote lehiaketa kudeatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduari.
- Lehiaketan ezingo dute parte hartu epaimahaia osatzen dutenek, kontratatuta dauden langileek eta **medicusmundi** Bizkaiako zuzendaritza elkarteko kideek, ezta horien zuzeneko senideek ere.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauen onarpena dakar.
- Erakundeak ahalmena du oinarrietan aurreikusi ez den edozein egoerari buruz erabakitzeke.

Jakinarazten dizugu ezen, 2016ko apirilaren 27ko DBEOren araudian ezarritakoari jarraituz, MEDICUSMUNDI BIZKAIAk jasotzen eta tratatzen dituela izaera pertsonaleko zure datuak horien konfidentzialtasuna bermatzen duten neurri tekniko nola antolakuntzazkoak hartuta, lehiaketa honen harira erakundearekin lotzen zaituen harremana kudeatzeko helburuarekin. Zuk onespena eta baimena ematen diozu tratamendu horri. Izaera pertsonaleko zure datuak gure arteko harremana kudeatzeko ezinbestekoa den denboran bakarrik gordeko ditugu. Datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahalko dituzu MEDICUS MUNDI BIZKAIA erakundearengana zuzenduz helbide honetan: Begoñako Andramari 20, behea, 48006 Bilbo, BIZKAIA.